

# ZARR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

214n. zenbakia  
urterilla 1997



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



ARRIETA'tar NIKOLA (100 URTE)  
GOIA'tar EPIFANIA BERE EMAZTEA (97 urte)  
(EUSKERAZALEAK)

# AGUR URTE ZAARRA, AGUR URTE BARRIA

Orain urte bete orrialde onexeetatik negarrez baina itxaropentsu ikusten neban 1996a. Dcnporeak negarraren arrazoa emon deust baina itxaropenarena ez. Beraz ez da bete erderazko esaldi orrek esaten dauana, urte barria hizitza barria. Dana dala itxaropena eriotzararte dagoan zera danez, aurrera beragaz.

Au bai sarrera iluna urte barria asteko. Ez da nire asmoa inori urte-asiera baltz ipintzea, berez eukiko dau naiko baltzitura nire laguntza barik eta (Urtarrilako aldapean sartuta gagoz, Gabonetako gastuek ez dabe parkatzen). Ez, alderantziz, itxaropen puntutxo jarri gura izango neuke irakurle guztien artean, eta orrexegaitik URTE BARRI ON ETA 1997a AURREKOA BAINO OBEAGOA IZAN DAITELA. Iazkoa ona izan bada, aurtengoa osasuntsuagoa, dirutsuagoa eta maitasunez beteagoa izan daigula danok!

Orrialde onek irakurtzeko orduan Gabonak joanda egongo dira eta taster asiko dira (asita ez dabagoz) soldatak dirala eta asarrealdiak, Athletic eta Errealaren zaleak euren taldeek zer egingo ete daben arduratuta jarraituko dabe, loteriarik ez jakunez jausi (oha erratuta benengo, dana dala zeozer jausi bajatzu, irakusle, badakizu non daukazu lagun bat) osasunak lagundu deigula, aspaldiotan irabazi doguzan kilotoxok ere arduratu egiten gaitue (batzuei kolesterola igon jakela, bestei ez jakela iazko erropea sartzen, andikoak zer itxura eukiko etc dauan ondartzara joateko orduan, emendikoak ez jakola izango erakargarria buruan dauan neska orreri...), ikaslea suspensoak jasotzearen ardura eta irakaslea ipintziarena, langabetuak lana lortu gura eta daukanak mantendu nai, azken batean erromatar arek esaten ebanez ez dago barririk zeru azpian. Egunkarira begiratu eta gauzak antzera dahilzala ikusi geinke, beraz bizitzak aurrera jarraitzen dau.

Ori hai, hizitza obetu daikien proiektuak derrigorrezkoak dira itxaropena mantentzeko eta aurrera jarraitzeko, bestela kortako beiak edo kale baztarreko txakurraren antzerakoak izango ginatke. Orreek egunak pasatzen ikusten dabez, bata bestearen antzerakoa dalarik. Gorago esan dodanez orain urte beteko antzerako ardurak daukaguz, baina urte guztiak batzutan zoritxarrez eta beste batzuten zorionez, ez dira bardiak izaten, danak izaten dabe zeozer aurrekoetatik ezberdin egiten dauazana. Orixe da eginbearra, aurtengoa desbardin egingo dauan zeozer bilatu eta lortzen saiatu. Baina, kontuz! Eginkizun onek ez dauka adinik, askoren buruan egoten da on gazteen gauza dala eta. Adinekoek zer-esan andia dauke gazteek ez dauken zera izaten dabelako: esperientzia eta jakituria. Batzuk buru gogortzat artzen dabez, eta batzuk izan ere badira, baina ez dago Qazteen artean ere orrelakorik? Eta ez gitxi gainera! Bunt gogorkeriak ez dauka zerikusirik adinagaz norberaren izakereagaz baino. Adin guztietan aurkitzen daguz zein artaburuak zein entzuteko eta languntzeko prest dagozanak!

Badagoz ekintza batzuk danon bearrizana daukienak, eta euskeraren aldekoak euren artean aurkitzen dira. Badakit ez dinodana gauza barririk, baina noizean bein gogoratzea ere ez

dot uste txarto dagoanik eta ez dot uste txarto datorrenik ere, alako batzuetan galdiunetxo bat egitea eta norberaren bunari galdetzea: eta zer egiten dot nik euskeraren aide?. Badakit jakin ere, batzuk ezin dabena askorik egin, euren eskuetan ez dago eta, baina izkuntza unen ja<sup>P</sup>e diran gurtiak, au da, cuskaldunak, zaar eta gazte, gizon eta emakume, ikasle eta irakasle, futbolzale eta pelotazale, langabetu eta landun, gotzai eta abade, lendakari eta alkate, betekizun errezena egingo balebe, erabili ain zuzen ere, pauso andi bat emongo geunke "izkuntzaren normaltasunean", bestela erdereza biurtuko jaku (ez bada biurtu) "izkuntza normala".

Beste aide batetik gure "artaburutasuna" euskeraren, eta batez ere bizkaieraren aide, darabilgunok ez dogu lan orretan etsiko, aide batetik inori kalterik ez deusagulako egiten eta bestetik oraindino zeregin andia dagola uste dogulako. Ni bentzat ez nago inoren kontra, ez naz "gerraren zale", prest nago edozeineguz berba eginaz gauzak konpontzeko, baina Jesukristo ere ez nazalez, ez nago prest aurpegia bein eta bet-rim ipinteko matraileko gurtiak aide berera etorri daitezcan.

ENRIKE ITXASALDE

## GABON AROKO GOGOETAK

Ego gurien eresi meeak  
Laztanten dabe eguratsa.  
Umetxutako gomutapenak,  
Samur gozatzen biotza.  
Beti ba-giña seintxuak, ene...  
Jaungoikoaren emoitzak!  
Gabon aldiko giro mazalak,  
Zergaitik dau here antza?

Bizia igaroz ikasten doguz  
Griña gaizto ta mingotsak;  
Ikus-eziñak, bekaizkeriak,  
Gordinkeri ta lapurtzak,  
Maitasunaren zorion izpiz  
Legortu beitez lupetzak...  
Gogo-zabaldi... urruti-miñak...  
Edur-zurizko argitzak!

Gabon-aldian, batac bestea,  
Agurtzen dogu gozatsa.  
Zergaitik bardin ez da gcratzen.  
Unte guztian baketsu?  
Biotz-barnitik, gaur eta beti,  
Ikus nai zaitut alaitsu:  
Orretarako ainbat ariñen,  
Izan daigun ume zentzu!

AURRETAR ANTON

# ARRIETA'tar NIKOLA (EUSKERAZALEA)

## (laster 100 urte)

### URTEETAN LANKIDE

Lankide izan doguzan gizon apal eta zintzoak ez doguz aitzu bear, ez bizi diran artean eta ez il diranean.

Olako bat dogu Arrieta'tar Nikola. Jaungoikoari eskerrak, oraindiño bizi da eta Zezeillaren, otsaillaren, 2'an beteko dauz 100 urteak. Euskerazaleak Alkartearen izenean eta ZER gure aldizkari onen izenean, be-joako gure zorion-agurrik beroena.



egin ebazan lan onetan. Gurtiz 54 urte ta erdi egin dauz Foru-Aldundian, zar-saria lortu arte.

### EUSKERAZALEAK ALKARTERA

Bein baten Nikola Aldundiko Liburutegian egoan Jose M<sup>a</sup> Martin Retana here lagunagaz euskeraz berbetan eta Montiano euskerazaleak dei egin eutsan Euskerazaleak Alkartera etorteko. 1967n. Urtea zan eta

urte orretan zar-saridun biurtzen zan lez, pozik entzun eban dei on eta Abeletxe'gaz batera, idazgo lanak-eta egiten asi zan. Orduan Jesus Oleaga zan lendakaria eta Jose M<sup>a</sup> Makua Diru-zaiña. Egurrola be laguntzaille ona zan. Orrelan igaro ebazan amar urte.

Gero batzordean maiko izan da urte batzutan. Beti lan apalak egin dauz, arik eta ezintasunak eta urteen astuntasunak etortea galazo dautsen arte.

Epifania Goya here emaztea gogoratzen dau sarritan: Mutiloa'ko alabea dan emakume argi au, laguntzaille ona izan dau Nikola'k: Ba-daukat Jaungoikoari zergaitik eskerak emon-diño Nikolak-baketsu ta zorionsu bizi izan garalako eta estualdietan naiz gaiso-aldietan beti aurrera egiteko lagundu dauskulako". Epifania'k 97 urte ditu.

### BIZITZAKO JAKINGARRIAK

Mungia'n jaioa dogu Nikola eta Mungia'n ikasi ebazan lenengo ikasgaiak eta antxe bizi izan zan gudaritzara joan arte, LARRETA BASERRIAN.

Gudaritza Donostia'n amaitu ondoren, lan-leku bat aurkitu bear izan eban. Aldundira lanera sartzeko dei bat irakurri eban, orduan "foralak" esaten jakenen idazgoan lan egiteko. Nikola norgeiako aretara sartu zan eta lan-lekua lortu be bai. 7 urte egin ebazan lan orretan.

1929'an beste norgeiako batera sartu zan eta Agiritegi ta Liburutegi'ko langilleen arduradun egin eben. 38 urte



### Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

### IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAK'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel on sartu karta-azal batean eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreátegi, 14, 2', eskoia. 48001 BILBAO

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

# GABONETAKO ALAITASUNA!

Lerro oneek irakurten asi orduko. Urtarrilaren erdi inQurua seguru antzean. Gabonetako zoramena igarota egongo da eta aldatz gora asita. Olentzeroren etorrera dala umeen larritasunak eta edo/ta Erregeen opariak, jostailuen poztasunari emon deutse bidea. Arrazoi berberagaitik guraso asko ez dira askoz lasaiago egon, aipatutakook ekarri baino eroan egiten dabe geiago eta. Enpresa gizonak ere urteko kontuak borobildu ezinean goiak eta beak jotzen ibiliko ziran, urteko azken salketak egin gurean.

Baina Gabonak kontraesanen sasoi dira. Kontraesanak egitea andren ezaugarri bat dala esaten dabe, baina ni ez nator bat orregaz, nire ustez gizaki guztion zera da. Aoz esaten doguna ez dogu ekintzez betetzen. Zenbat bider esaten dogu a edo bestea eta gero betetzeko orduan jai. Gabonetan, batez ere Eleizatik, ezbeharrean dagozanak kontutan artzeko deialdiak datozanean, danok erdi negarrez eta sudurretan zintz eginez, arrazoiak daukie la esaten dogu. Abots batera (mila ensaio egindako abesbatza bagiña bezela) ez dagoala eskubiderik esaten dogu. Munduko aberastasunak obeto bananduta egon bearko litzatekez, ez dauka zentzunik XX. Mendearen azkenean inor gosez iltzen egoteak, amar ogerleko balio danzan txerto edo "bakuna" ez eukiteagaitik gure artean lelokerizat artzen doguzan gaisotasunekaitik iltea. Baina egi gordina orixe da.

Azao joan barik, inguruetan ere badogu nori kasu egin. Langabezia ez da txantxetako arazoa. "Inakia" k edo "paisak" ere inguran dagoz urregoko egunean dizdira galtzen daben urrezko erlojuak saltzen. Zer esan drogaren arazoatuz? Arlo onetan eta gure artean, zoritxarrez. bai dagoala nori eta zelan esku bat luzatu.

Eta zer egin negar eta mokoak kenduz aparte? Au bai galde- ra inusentea! Ba, LAGUNDU, aal dan modu gurtietan lagundu. Baina... zelan? Ortze kakoal! Ez da izango laguntzeko erarik ez dagoalako, Gura dan moduan gainera. Parte artuz zuzen-zeze- nean, erakundeetariko baten (Karitas, Proyecto Hombre, Inter- mon,...) edo diru laguntzak emonaz. Baiña zelan? Parte artzeko beti faltan daukagun denporea bear da eta dirua emoteko. den- porea baino eskasagoa dogun ondasuna emon bear. Beraz eziña

danez laguntzea, negar eginaz eta bularrean "pekataria naz" esa- ten dogun artean lau kolpetxo emonaz kristaua izan ezker, zein "ez dago eskubiderik" danak entzuteko moduan altu-altuan esan ezker, eleiztarra izan ezik. gurea bete dogu. Gainera kristauak oso errez daukagu, azken batean abadearengana joan ezker. pekatuak autortu, barriro ez dala egingo norberen buruari esanez Jaingokoaren parkamena eta bedeinkazioa artzen dogu peniten- zia txiki baten orde. Ez da makala tratua! Ala-ren jarraitzaileek gatzago dauke. Gainer, gaur egun abadearengana joan bearrik ere ez dago. taldeko autortzak direla. meza guzietan pekatuak parkatzen direla... erlijio au itzelezko "txolloa" da, mila era eskeintzen deuskuzalako kontzientzia zuritzeko eta gauero lasai- lasai lo egiteko. Orrela gure burua garrantzitsuagoak diran beste arazo batzuetan euki geink.

Orregaitik ba, telabistakate guztiei mesede hat eskatuko neus- kioe. Urregoko Gabonetan eta batez ere Gabon egunean eta Gabonzarrean ez egizue atara tristetu egiten gaituen irudirik: ez jateagaitik sabela andituta daukien umeak, negarra dariola dago- zan gaisoak, baserriko kortea haino loiagoak diran eritetxeetan dagozan zaurituak. pilatuta dagozan erbesterratuak, txakurraren etxea baino txabola txarragoten bizi diren sendiak, kale ertzean eskatzen dagozan ijitoak, lan egin gura eta ezin dabenak,... Irra- tietako esatariok ere ez kontatu antzerako gauzarik Gabonetako erosketak egitera noanean autoko irratan alako gauzak ez dira atseginak eta.

Beraz, mesedez, gogoko izango neuke aingerutxuen Gabon kantak entzun, kaleetako argi koloretsu eta dizdiratsua ikusi (lasai. ez daukat akziorik Iberdrolan), turroi marka guztien ira- garkiak ikusi, eta batez ere, udako kantu pozkarriak kantatzen dabezan artean, titiak airean, erdi bilusik telebistan agertzen diran neska lirainekaz begiak alaitu. Nik, gorago esan danez, aal dodan guztia egin dot eta ezin dodanez besterik egin kontzientzia lasai daukat.

ENRIKE ITXASALDE

## EUSKERAZALEAK (Euskerea erabiltearen aldeko Alkartea)

### BATZAR NAGUSIA

Euzkerazaleak Alkartea urteroko Batzar Nagusia egingo dau, here Batzar-Etxea dan Larreategi'ko Kolon kalean, 14, 2n., eskoian. urterillaren 25'n. Egunean, arratsaldeko 8'etan.

Batzar orretan urteko ekintza guztien barria emongo da, diru-arazo guztiak zeatz agertuko dira eta Alkartearen Batzordean aldakuntzak egiteko aukerea eskiñiko da: Lendakaria, Diruzaiña eta maiko bi aldatzeko. Bazkide guztiak dira eskubidedun autag- aiak eskintzeko.

LENDAKARIAK

### ASAMBLEA GENERAL

La Asociación EUSKERAZALEAK celebrará su Asamblea General Anual en su domicilio social en Colón de Larreátegui, 14, 2º, D" el día 25 de enero de 1997, a las 20 h.

Como puntos del Orden del Día se establecen los siguientes: 1.- Exposición de actividades de 1995. 2.- Información económica referente al mismo año. 3.- Renovación de cargos de Presidente, Tesorero y dos vocales. Todo socio puede presentar candidaturas. 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

# ALEJANDRO LABAKA ETA INES ARANGO

## Martiri Berriak

Ecuador'eko Gotzaien Konferentzi'ko Batzar-gelan. indioen lantza bat dago orman esegita, onela dioten itz auekin:

"Le atravesó el costado con la lanza (Jn 19,34). / A la memoria del queridísimo Hermano Monseñor Alejandro Labaka Ugarte O.F.M.Cap.. Obispo Vicario Apostólico de Aguarico. Llevado de su amor misionero entregó su vida el 21 de julio de 1987 a manos de quienes quería, como Buen Pastor, proteger y salvar. El ejemplo de su caridad suprema (Jn 15,13) significará siempre para los miembros de la Conferencia Episcopal Ecuatorial un apremiante llamado a servir y evangelizar con preferencia a nuestros hermanos indígenas (Quito. 10 de agosto de 1987)."

Eriotzaren seigarren egunera, Beizama'n egin ziran illetak. Garaigordobil, gotzaia buru zala, beste ogeita amar apaiz lagun zituala. Andik bi egunera (29-VII-1987) Donostia'ko katedralean, egin zan beste orrenbeste. Jose María Gotzaia eta 66 apaizekin. (Aldiskari Nagusia Donostia'ko Gotzaitgia. 438 zn. XXXVIII (1987) 888-91 orrialdeetan).

## Beizama

Intxur-menditik beera Azpeiti'ra dijoan bidean kokatzen da Beizama'ko errixka eta bertan jai() zan Alejandro 1920'garrengo Apirillaren 19'an, bederatzia seme-alaba izan zuen baserrian. Bera baño bi urte zaaragoa zan Manuel. bere anaia, joan zan lenago Alsasu'ko Kaputxi-noetara. Gero, bera. Andik Sangüesa eta bertan egin zuen bare profesioa eta izena Manuel (bere anaiaren izena) de Beizama, artu zuen. Gerora, bere izen berberarekin ezagutuko genduan: Alejandro Labaka, alegia.

Emezortzi betetzeko, gerraren irugarren urtean, ots egin zioten kaki jaztera. Ez ziran egun onak eta Regimiento América'tik Teruel'go frentera bialdu zuten, Muela de Sarrion'era. Andik Valencia artu arte. La Quinta del Biberrón deitzen giñun, talde gaztetxo arrei; ez zan iñor entxufatu; oso-osorik joan ziran danak Aragoi eta Kataluña-alderuntz, burrukarik gogorrenak zeuden tokietara.

Soldaduzka-bearrak amaituta, berriro komentura, apaiztu arteko guztian. Egun on eldu zan 1945'ko abenduaren 22'an. Andik bi urteetara, 1947, berak eskatuta, Txina'rako aukeratu zuten; bertan egon zan. 1953'garrean Mao'k txera bialdu arte. Txina'k biotza ikutu zion. Ez zitzaion burutik galdu sekulan. Egun aietan Kaputxi-noek Misio berri bat iriki zuten Ecuador'eko Amazonia'n eta ara joan nai izan zuan, beti mixiolaritzan jarraitzeko.

## Mixiolari Ecuador'en

Quito eta Guayaquil'en linean ibilli ondoren. 1965'ean Aguarico'ko Prefecto Apostólico izendatu zuten Erroma'n. Vaticano II'go Konzilioa aurrera zijoan, Aita Santu Joan XXIII agindu au eman zuanean: Datortela Prefecto <Apostoliko gurtiak Batzar Nagusi onetara. Orrelaxe joan zan Alejandro Erroma'ra. Bare izenpe au "Ego Manuel de Beizama, Labaca Ugarte" amaika dokumentuetan dago; oien artean, "Ad Gentes" agirian. Garai aretan oraindik Manuel de Beizama zeritzan, gerortik artu zuan bere benetako izena: Alejandro Labaka Ugarte.

Estabaida batean artu zuen parte Erri Txikien eskubi-deen aide ("defensa de los derechos de las minorías étnicas) eta berarekin batera beste auek: Larrañaga eta Olano, kaputxinoak eta Gotzai auek: Tarancón (Oviedo), Jubany (Gerona), Pildain (Canarias), Garaigordobil (Los Rios). Anasagasti (El Beni-Bolivia): danctara, ogei Konzilio'ko guraso. Zer nai zuten? Gai on-etarako agirian zeatzago eta luzeago erri txikien aldeko eskubideak, argitzeko, "Pacem In Tenis" enziklikaren arauera.

Burruka gizon adanak puskatu arte eta azkenik barruko pakea galduta, gorputzez eta buruz nekatuta, Prefektutza Apostolikuari bizkar eman zion eta lagatzeko eskatu zuan. Eman ere eman zien eskatutakoa (1970-VI- I I ).

Ondorengo, urteetan, Amazonia aldean Ian egiten du indioen artean: 1977'an Huaorani, indio taldea, bere kontu artzea agintzen diote. Amazonia'ko Misio aren buru ere ebin zuten iru urterako (1979-82) eta berriro ere artarako aukeratu. 1984'ean Gotzai egin zuten Aguarico'ko Elizaren Vicario Apostolico.

## Huaorani'ko Senitarte

Gotzai izendatu baño leen, Huaorani erria bare eskuartean ipiñi ziotenean, lenengo lana izan zan, bertako famili batean bare burua txertatzea. Bertako "aragia" artzea, huaorani biurtzea, Jainko'aren Semea giza-aragia artu zuan bezela. Ori egin zuan 1976'gn. Urteko Gabonetan. Barak orren berri erderaz eman zuan eta euskeratu ezkerro, daukan "sorginkeria" galduko Juke. Ona nola esaten digun, biotza eskuetan dardaraz duela, gaua aien txabolan pasa ondoren:

"Se hizo un nuevo silencio hasta que clareó el día.

Me levanté inundado de una gran alegría. Tal como estaba en paños menores, me adelanté hasta el jefe de la familia. Inihua y Pahua, su señora; jun-

## ELEIZEA

to a mí se hallaba ya el hijo mayor. Con las palabras "padre, madre, hermanos y familia" me esforcé en explicarles que ellos, desde ahora, constituían mis padres, hermanos; que todos eramos una misma familia. Me arrodillé ante Inihua y él puso sus manos sobre mi cabeza, frotando fuertemente mis cabellos, indicándome que había comprendido el significado del acto. Hice otro tanto con Pahua llamándole "Boto haca" (mi madre): ella posesionada de su papel de madre, me hizo una larga "camachina". dándome consejos. Luego puso sus manos sobre mi cabeza y frotó con fuerza mis cabellos.

Me desnudé completamente y besé las manos de mi padre y de mi madre Huaorani y de mis hermanos, reafirmando que somos una verdadera familia. Comprendí que debía despojarme del hombre viejo y revestirme más y más de Cristo en estas Navidades. Todo se desarrolló en un ambiente de naturalidad y emoción profunda, tanto para ellos como para mí. sin poder adivinar todo el compromiso que este acto puede entrañar para todos.

Me vestí de nuevo y ellos comenzaron a preguntarme cómo se llamaba mi padre, mi madre y mis hermanos. Esto me sirvió para decir los nombres de mi padre, madre y mis hermanos, añadiendo que, además, ahora tenía a ellos de padre, madre y hermanos.

Fueron ellos los que me hicieron caer en la cuenta del parecido de los nombres de mis padres con los suyos: "Ignacio/Inihua. Paula/Pahua"

Cuando llegaron otras familias noté que Inihua les describía lo sucedido y volvían a preguntarme los nombres de mis padres y hermanos".

Andik urte batzuetara, Gotzai sagaratu zutenean, 1984-XII-9. here itzaldiak, an agurtu zitun anai arrebak: "Felisa, Kontxita eta lkañi maite maiteak"; baita ere Huaoraniko familia ere: "auto bara, buto mepo. huaorani memorani...". Baña, Txina ere gogoratu zuan, berarekin maite-minduta bait zebillen oraindik, amesetan noiz ara joango, indio kristauetz inguraturik, kristautasuna bertan zabaltzera...

Huaoraniko jendearekin izandako ar-emanak oso estuak eta ugariak izan ziran. Aietara join eta eiekin, beuren mizimodura, bizitzen saiatzen zan. Ango izkera kasettetan artu eta buruz ikasi: bertako eginda zegoen. Amar urte luze saiakera onetan. Mixiolarien laguntzarik ez zitzaion sekulan falta: baña, geien lagundu ziona Inés Arango izan zan. Alejandro Huaorani famili bateko senitarte eginda, urte betera, agertu zan Inés au mixio artara eta arrezkero Alejandro'rekin bat eginda ibilli zan Ian onetan.

### Gotzai

Amar urte auetan Alejandro'k ez du bataio bakar bat egin, lagun talde aundia baldin ba'du ere. bertakoekin. Kristo da bere elburu eta indar-iturri. Erreketan-gora ibilaldi ugariak egin ditu mixiolarietako dituela. Azkenik,

elikoteroz egitea erabaki zuen, oianeko biotzeraiño eldu aal izateko.

Joan-etorri aidez eginda gero, erabakia artu zuten Gotzai Alejandro eta Inés Arango mixiolaria, jetxiko zirala, oianeko zabalgunek batera, indio berriekin ar-emanetan jartzeko. Uztaillaren 20'an, astelena. Jeisterako tramankuluak akatsen bat izan, eta ondorengo egunerako utzi bear izan zuten. Ogeita lau orduko atzerapen onetan, denbora pasa. erregali guztiak aztertu zituzten: eltzak, aisto luzeak, manta eta soñeko, janariak...

Ogeita batean, goizeko amar t'edietan, irtetzen du elikotoak. Ordu erdi bear dute. oianean zear. Tagaeri'tarren txaboletara eltzeko. Erdiko enparantzan jeisten dituzte biak, Ines eta Alejandro euren erregaliek. Zeruan aize-gaillua ikustean, beko indio guztiak izkutatu dira. Jeisten dira Inés eta Alejandro eta bi eskuak ao-parean, deika asten dira: Zuen lagunak gera, emen gaude, zuengana etorri gera... Zeru-ontzia badoa eta biar etorriko dira, egi pozgarri aukustera.

Etorri ziran, etorri. Zer ikusteko'?. Alejandro'ren gorputza billotsik, lurrean luze, amabost lantza bularrean, lora-sorta baten antzera, eta bere aldamenean, Inés iru lantza bioz-ondoan. Irriparra biak ezpañetan. Alta Goldaraz, Alejandro'ren lagunak, 15 lantza atera orduko, soldaduek iru atera zituzten aurretik. Beraz, 15 ez, baizik 18 sartu zizkionten Alejandro gotzaiari.

Zer gertatu zan? Naaste-borraste bat dago erdian eta arazoa naiko illuna da. Dana dala, eurak naita joan ziran Tagaeri aietara, maite zituztelako, Huaorani zirelako, eta Huaorani erria "eurena" zalako...

### 21-VII-1987 / 21-VII-1996

Eriotzaren bederatzigarren urte-mugan, "Vicariato Apostólico de Aguatico"ren katedralean. Coca'ko Elizan, iriki da "proceso canónico diocesano", asiera emanek, aldarretara, bi martin auek, eramateko ekintzari. Ecuador'eko Gotzai gurtiak, 1994'ko otsaillaren 23'an izenpetuta, Aita Santu Juan Pablo II'garrenari bidaldutako eskutitz batekin eman zioten asiera ekintza orreri.

Badu Aita Santuak munduari "Tertio Milenio Adveniente" izeneko here Eskutitz bat bialtzeko, martin zerrenda luze bat munduari eskeiñiz. Or azaldu bear dute, martin berri-benn auen izenak, Alejandro eta Ines. Merezi du gizon onen bizitza eta kristau-joera munduak ezagutzea, geure sinismenaren eutsigarri.

Asmo oiek lortzeko, indar asko du Ecuador'eko Gotzai gurtien eskabidea eta eurok eskatu dute, Alejandro eta Ines, aldarretarako bidean ipintzeko, mixiolari lanaren martin bezela eta danentzako eredu. Norbere bizitza besteen aide ematea da maitasunaren ezaugarririk aundiena. Orixe egin zuten Alejandro eta Ines'ek.

ANES'ek  
(SURGE'tik: mayo-junio 1996)

## CARLOS CLAVERIA

### EUSKAL ATSA NAFARROA'N

Nafarroa'rentzat eguna berexia izan da aurten-go Urriaren irugarrena. Iru Erregeen arrotz-etxean aurkeztu du Carlos Claveria napar idazle ospetsuak bere azken liburua: "ABERZALETASUNAK EUN URTE NAFARROA'N". Erdaraz idatzia dago liburu au.

Utsune aundi bat betetzen du gaur. Aberzale giro ederra agertzen zaigu Nafarroa'n.

Liburu onek oñarri sendoak agertzen dizkigu. Gauza jakingarriak ikasten ditugu. Bat pozgarria: "LA GAMAZADA" delakoa. Nafarroa osorik batu eta altxa zen Madrid'ko indarkeriaren aurka (1893).

Bertze berria, negargarria: Lizarra'ko Estatu-tuari ezezkoa eman zion Nafarroa'k. Gaur oraindik gertakizun orrek min ematen dio. (1931).

Bi ekintza oien itzalean bizi gera. Giro orretan sortu ta azi da Nafarroa'ko aberzaletasuna.

Idazleak dioenez, izen batzuek izarren antzera anitz eman zioten Nafarroa'ri. Ongi ikasi bearrak ditugu: MANUEL IRUJO, ARANZADI ETA JOXE AGERRE.

Gizaldiaren asieran bertze izar aundi bat euki zuen: Aita Evangelista de Ibero, gizon langillea ta aberzale sutua. Gazterik it zen.

Bertze aunitzen artean ortxen dago, aritzaren antzera, Santiago Kuntxillos; Aldundiko idazkaria.

Liburu orretan ezagutzen ditugu iru batzoki garrantzitsuenak: Lizarra'koa Fortunato de Aguirre'rekin, Tafalla'koa Dosandabaratz'ekin eta Agoitz'koa Leopoldo Garmendia'rekin.

"EUSKALERRIKO ADISKIDE" taldeari garrantzi andia ematen dio. Franco bizi zala oraindik berpiztu zuten berriz euskal atsa Nafarroa'n. Urrats oiekin asita zabaldu da gaur arte erri aunitzetan euskal indarra. Gerxeago asiko dira gauzak nasten.



Bi zanakiko liburu mardul onen egillea ezaguna dugu Nafarroa'n. Ez da nolanaikoa. CARLOS CLAVERIA idazle langillea dugu, gizon argia, aberzale ona, euskaldun ziñezkoa. Bereratzu liburu ditu argitaratuak, baita ere milla ta irureun idazlan. Gaiak berriz Euskalerrikoak.

Gure idazlea Iruña'n jaiotzen da 1924'garren urtean. Amalau urtekin sortzen zaio euskal zaletasuna. Aita Eskolapioekin ikasten ibilli zen; oietako batek Euskalerriko maitasunaz kutsatu zuen. "Komerzio" ikasketak egin ondotik lanean beti jo ta ke sendia aurrera ateratze arren, baita ere idazten aspertu gabe. Euskal giro ederra zabalitzen ibilli zaigu beti. Arturo Kanpion'en jarraitzailea dugu, "EUSKALERRIKO ADISKIDEEN" zuzendaria izana. Baita ere, Franco'ren ondotik Nafarroa'ko Batzar Nagusian erriaren ordezkaria izana.

Idazle ona dugu. Bere ustez, idatzitako liburuetatik ederrak NAFARROA'KO ERRESUMAREN KONDAIRA da bat, eta bertzea azken liburu; auek ditu atsegiñenak. "ABERZALETASUNA EUN URTE NAFARROA'N" liburuia igazko urteko lana izan da.

Gure idazle onek maite du euskara. Ikasitakoak erabiltzen ditu. Ba ditu ere sei olerki euskaraz egiñak. Nai nizkioke argitaratu. Urrats oiek emanez Nafarroa euskalduntzen goaz. Gaiak ikusi bear eta izkuntzaren lotura.

Gure gizaldi onetan CARLOS CLAVERIA; IDAZLE TA ABERZALE BEZALA Nafarro berriaren langille onetakoa dugu.

Ezin aztu: aipatu ta goratu dugun azken liburuia, etorriko diren ikerlariaren oñarri berexia ta bearrezkoa izanen da. Eskerrikasko.

# AITA SANTI ONAINDIA ELIZGIZON, EUSKALZALE, OLERKARI

## EUSKAL ASTEA (EUSKERAZALEAK)

NON? Abenduren 2, 3 eta 4'an, arratsaldeko 8'retan.

NON? Bilbao'n Eskolapiotarren Ikastetxean (Aida. de Recalde, 19'an)

### EGITARAUA

2'an: Aita Santi Olerkaria. Izlaria: Murua'tar Jose Maria.

3'an: Aita Santi Elerti-Edeslea. Izlaria: Olazar'Martin.

4'an: Aita Santi Euskalduna. Izlaria: Zubikarai'tar Augustin.

Oarra: Asieran izlari bakoitxaren aurkezpena egingo dau Euskerazaleak Alkartearen zuzendari dan Zubiri'tar Iñaki'k eta itzaldi bakoitxaren askenean, olerki baten bidez egingo da laburpena.

EUSKAL-ASTE ONEN BABESLE, BILBAO'KO UDAL BATZA DA

ZATOZTE EUSKAL-ASTERA!

DEIA 1996-11-28

## EUSKERAZALEAK ALKARTEAK AITA SANTI ONAINDIAREN OMENA **BILBON**

Urtero Euskerazaleak alkarreak Bilbon antolatu oi dauan Euskal Astean, Aita Santi Onaindiaren omenezko jardunaldiak amaitu ziran atzo Eskolapioen ikastetxean. Euskal idazle ezaguna zanaren iru ikuspegi azaldu dira ederto aste onetan: lirika-zalea, literaturaren edeslea, euskalduna, bere bizitza luzean zear.

Astelenean, berbaldia Jose Mari Mujika gipuzkoarrak emon eban, bere gaia Aita Santi karmeldarraren barru-mifiezko olerkia zala, oñarri lez euskaldunak bere baserriari dautson maitasuna artuta. Aita Santi barru-mifiezko iru olerkari nagusien artean (Lauaxeta, Orixe, Lizardi) sartzeko beste-koa dala esan eban Mujikak.

Asteartean, Olazar'tar Martin izan zan izlaria, eta onen gaia,



Aita Santi Elerti edo literatura edesle. Euskal literaturaren edesleak (historiak) Mitxelena eta Villasantek erderaz idatzi ebezan, baiña Olazar'en ustez, zabaltasun andi barik. Arlo onetan, Aita Santik osteran lan sakona eta zabal-egin dau, izlariaren iritzi. Iru liburu, batez be, itzi dauz Onaindiak lekuko: Euskal literatura ikastoletan erabilteko eskuliburu oso egokia, baiña, Olazar'ek azaldu eban, gero ez deitsoe onartu "hatxe" barik idatzi ebalako. Beste lan bat, Milla Euskal Olerki Eder, 1953an argitaratua, benetan altxor ederra.

Eguastenean Augustin Zubikarai ondarrutarrak Aita Santi euskaldun lez zelakoa zan azaldu eban, guda-aldia eta bake-aldia gogoan dirala.

DEIA 96-12-5



**AURKEZPENA**

Jaun- andreak:

Urte onetako Euskal Astea atontzeko garaian, eskeintzarik bidezkoen eta merezitakoena, aurren gure artetik joan yakun Aita Santi Onaindia'ri goratarrea egitea, uste izan dau "Euskerazaleak"en Batzordeak.

Berari buruz mintzatuko dira guretariko iru euskaltzale ondo ezagunak, bait-1a labur bada be, autortu bear dot, euskal elertiarren alorrean Aita Santi erraldoia izan dala, bere ainbat eta ainbat tan, liburu, olerki etab... lekukoak izanik. Apal baizen gizon andi onek, laga dau euskal-elertian, iñoiz ezabatuko ez dan lorratz andi ta dizdiratsua.

Gaurko itzaldia Jose Maria Murua'ri, euskaltzale zintzo ta adiskideari dagokio, bere berbaldi gaia izanik: "Aita Santi Onaindia'ren barru-miñezko olerkiak". Murua Jauna donostiarra da, Banketxe lanetan jardun izana, gaur zaar-sarituua bada be. "Basarri" bertsolari ta idazle bikain eta jatorraren adiskidea dogu, eta beronen lankidetzaz Diario Vasco'n euskal lan asko argitaratu dau eta argitaratzen diardu. Olerkaritza ta bertsolaritza saillean ezagulari andia da, bertso-jartzaille saiaturia izanik.

Orain, zuekin bera, Jose Maria Murua Jauna.

1996'eko Azilla'ren 2'an.

ZUBIRI'tar IÑAKI

**AITA SANTI ONAINDIA  
ELIZGIZON, EUSKALTZALE, OLERKARI****BARNE MINTZOAREN INDARRA**

Aurkibidea

EDUKIA:

**1. ITZAURREA**

—Barne mintzoaren indarra

**2. GURE KULTUR ETA GURE GIZARTEA**

—Elizgizonak euskal kulturaren eragilleak.

—Jaiotetxea eta familia.

—On Joxe Migel Barandiaranen iritziak

—Aita Santi Onaindiaren iritziak.

**3. AITA ONAINDIA. ELIZGIZON -EUSKALTZALE-  
OLERKARI BATERA**

— Martin Olazar, Euskerazaintzako leendakariaren itzak.

— Paulin Solozabalen olerkiak.

—Joxemari Latxagak Aita Onaindiarekin elkarrizketa

—Olerkia eta barne mintzoaren indarra

— Aita Santiren iritziak.

— Aita Santiren olerkiak.

**4. ONDORIOZ**

—Jainkoaren billa

**5. AMAIERA**

—Aita Santi Onaindia gurekin.

—Bertsoak

JOXEMARI MURUA-GOÑIK

EUSKERAZAINTZA 1996

**ALTA SANTI ONAINDIA OLERKARI  
(BARNE MINTZOAREN INDARRA)****1. ITZAURREA**

AITA SANTI ONAINDIA OLERKARI. Ori da gaur emen neri, egokitu zaidan gala, EUSKERAZALEAK eta EUSKERAZAINTZAK Aita Santi Onaindiaren omenaldi-rako prestatu dituzten ekitaldien barman.

Gure izar argi on Amoro-ton (Bizkaian) piztu zan, 1909ko epaillaren 3an; bere bizi guztian ain maite izan zuen Atxuriarte baserrian. Eta dakigun bezela, aurtengo otsaillaren amaiekan, Zeruko Aitaren etxera bideratu zi-tzaigun.

Orain dala gutxi, Euskerazaintzako maixu ta lagun agur-garriengandik beren batzarretara joateko deia jaso nuen. Ni dei on gogoz arturik, laguntzaille izateko asmotan urbildu nintzaie. Obeto esanda, ikasle zintzo. Eta orrela gaur, poz-pozik aurkitzen naiz beraien artean.

Olerkari aundi bati buruz iritzi oso bat emateko asko jakin bear da. Ni ez nator aide orretatik. Ba dira lan orri el-tzeko nik bait-10 askoz ere gaitasun aundiagoa dutenak. Bat aipatzekotan, jo dezagun Juan Mari Lekuona batengana. Aita Santi Onaindiaren "Olerki Guztien Bilduma" liburua-ren. leenengo orrialdeetan, antxe dakar azterketa bikaiña Juan Marik. Nik ez det aipatuko ez metrikarik, ez irudirik, ez sormenik.

Elizgizon eta olerkari Alta Santi zanez gero, Euskera-zaintzako lagunek ba zuten norengana jo ere zuzen zuzenean. Eta emen Paulin Solozabal aipatu bear, elizgizon eta goimallako olerkari izanik, ainbat lan eder argitaratuta dituana.

Baiña oriek orrela izanda ni omen nago eginkizuna bete naiean, eta aurrera jarraitu bearra daukat.

Sarritan irakurria det Aita Santiren lan ederra, eta bere jardun orren miresle aundi bat izan naiz; bai euskera aide-tik eta baita ere, bere BARNE MINTZOAREN INDA-RRAGATIK. Beraz, Aita Onaindiaren olerkiek niregan utzi duten ikutua adierazten saiaturia naiz.

Neure ustea, aita Onaindia olerkaritzaren bitartez ere gure Erriaren barneko korapilloak askatzen saiaturia zan.

---

## EUSKAL-ASTEA

---

Euskalerriko mingostasunak sortzen zizkioten malkoak barnera isurtzen ha zekien: eta Jainkoaren soroa landuz baita gaziak gozaten. AZKEN BATEAN BERE ARDATZ NAGUSIA LORATZEN ZITZAION. ELIZGIZONAREN. Jainkotiar aparta, apala eta nekaeziña goi-lan orretan.

Ni, lantxo au burutzeko, here BARNE MINTZOAREN INDARRAK niregan utzi duen urratsetik bideratuko naiz, olerkaritzaren teknikak aide batera utzirik leen esan dedan bezela.

### 2. GURE KULTURA ETA GURE GIZARTEA

Labur-labur bada ere aipa dezadan bidebatez Aita Santiren sentipenen inguru giroa.

Gerra garaiean kanpotikako erasoaldiek leertuta utzi ziguten Euskalerrria. Aita Onaindiak, beste askok bezelaxe. gertutik. oso gertutik. bizi bear izan zituen ordu beltz aiek.

Gaur egun berriz, gure sorterri maite au. oz ote zaigu barnetik leertzen ari? Elkarren arteko leiaz sakabanatuta gabiltza. Gure kulturak sastada galantak artuak ditu kanpo-koengandik. Eta guk. euakalduok. gaur egun, zer egiten degu?

Ba dirudi gerrate baten ondoren bizi gerala. Euskerak, Euskalerrrian ibiltzeko pasaporte bat bear du. Bai alajaiña! Hizkia da pasporte orren izena, eta on gabe bide geienak itxita dauzka. Eta bizkaierak. gaiñera. millaka urtetan sustraitutako bizkaiera indartsu eta oparotsu orrek, pasaporte bat du naikoa: Aditza, here aditz gozoa etxerako utzi bearra dauka, eta etxean ere ba du eragozpenik. Umeak eskolatik itzulita, ikasitakoaren arabera, sarritan onelakoak esango dizkizue: "Ori ez da orrela esaten". Negargarria benetan! Eta oker bideak ez badira zuzentzen, bizkaieraren etorkizunari buruz, zer esan?

Bizkaiera ori. Aita Santik, euskaltzale jator-jator ark, umetan. etxean. -baserrian erro-errotik— ain ondo ikasi, eta gero bere kultura mailla aunditik jakite-egoz jantzi zuena, Lizardiren amets ona egi biurturik.

Elizgizon zan aldetik, gure Erriak fede bidetan azken boladan izan duen aldaketaren aurrean ez zuen etsi. Or jardun zan, malkoak barnera isuriz, gozo-gozo. Kristoren mezua zabaltzen, biotza eta eskua luzatuz bear zuen euztari.

Bi gertaera negargarri datozkit burura. Iritziak iritzi. eta gaizki esaka jardun gebe, besterenak errespetua ez al merezi? Bi gertaera orietan gaizki esatea izan bait zan bi neskatoren aotatik entzun genuena. Ara nola:

Donostiako Victoria Eugenia antzokian giñan, 1993ko urtarrilla zan. Eta bertsolariak Alta Onaindiari, Alfontxo Irigoienekin batera, eskeiñitako omenaldia ospetzen zan. Neskata gaztetxo bertsolari batek. ez dakit zenbat metro luzeko atzaparrak erantsi zizkion elizari. "atzapar oriekin euskera menperatzeko", esan zigun. Egia azpikoz gaiñera jartzen danean orrela azaltzen dira istoriak. Ez jakiñak esan arazten dituen kontuak geienetan gazteen aldetik. asmo txarrik gabekoak, nolabaiteko edestia azaldu naiean. Beren kabuz baiño besterenengandik jasotako iritziz noski. Eta gure Aita Santi, berriz, -barneko korapilloa ederki gordeta-omenaldiaren amaieran, irripartsu, -paketsu beti zan beze-

lako— aurkeztu zan agertokiaren erdian, esker ona emateko omenaldiaren eratzaillei eta entzule giñanoi. Eta bertso gaiak aipatu zituen. Bai ederki aipatu ere! Leu-leun auxe esan -Lion gaxztetxoari: "Gaiak zabaldu egin bear dozuez beti gauza beral esaten jardun bank".

Beste batez, au Durangoko azokan. Maiburu zan, idazle batzuren lanen aurkezpenean. Neskatilla gazte olerkari batek, here lanaren ben-i ematen ari zala, eliza ikutu gabe ez zuen utzi, bai ikutu zorrotza ura ere! Berriro ba zirudien besteren utsuneak elizaren akatsak zirala. Neskatilla ark aurkezpena bukatu ondoren, aztertzaile Aita Onaindia izanik. itz goxoz eta maixutasunez goraiatu zuen neska olerkariaren lana. eta azkenean onale amaitu zuen: "Eta oraindiño asko ikasiko dau". Orrelakoa genuen pure praile-olerkaria.

"Euskerarekiko elizaren aginite moduko ori" -batzuren ustetan— egi borobilla esateko. MAITASUNA esan bearko litzateke.

Juan San Martinek 1968garren urtean "Escritores Vascos" izeneko liburu bat argitaratu zuen. Or azaltzen diran idazleak zenbatuta, emaitza auxe ematen digute: Guztira 413: eta orietatik 188 elizgizon. Ba da zerbait!

Leen eta orain elizgizon askok eta askok, orrela agertu izan digute euskerarentzako maitasuna. Bere eginkizunean alegia.

Aipa ditzadan iritzi jakingarri batzuk.

*Ara ON JOXE MIGEL BARANDAIRANEN it\_uk*

Bere illoba Luisek biografian azaltzen dizkigu:

"Ataun Ama Lur" ataletik artua:

(...) "Gizonak ezieran izan duen giroak alako bereiztasun bat ezartzen dio Bere espirituan, oeste giroekin erabat naasten ez den bereistasun bat".

"Baserriko bizitza" atalean:

(...) "Familiako goxotasuna pertsona geienei barruraino sortzen zaie, baserrikumeei batez ere; giro ori gizonarentzat biziena, sarkorrena, iraunkorrena, eta denboraldi luzean. bakarra bait da"

*Eta are ALTA ONAINDLAK dioena:*

"ZER" aldikaririk.

"NERE JAIOTETXEA" du izenburu idazkiak. Atxuriarte baserrira ikustaldi bat egitera joanda gero idatzi zituen lerro batzuk artu ditut:

(...) "Nire loba Floren, azken batean, pizkat aurreratuta, oiuz asi jakun: "Emen, emen dago!" An egoan, egon be, gure baserria, gure jaiotetxea. Atxutiarte, piñu-estalkiz gordeta. Beerantz joian eguzkiak, ler ostoa artetik. maitekor emotsazan azken erraiñuzko loxingak. Eta sorginduago egian onek nire sortetxea. Ipar-ekialdera hegira datza nire jaiotetxe matzala, leenago solo. landa ta fruta-igali zugatzez esitua, gaur dana piñu-insigniz baltzez josia".

"Biotzaz eztanda! Ez dakigu zer adierazo! Azkenez, danok bateka poz-oiuka: "Agur! Agur, oillo-lur! Agur, jaiotetxe lartan! Barriro guk malkoz. Eskerron jario daukat nik biotza. Zu laga ta urrindu nintzan ni; bait-la etzaitut iñoiz

aztu! Eskerrak zuri izan naz nazana. Eskerrik asko. diñozut. neure baserri eder! Zeurea nozu! Zeurea izango!"

*ALTA SANTIREN BESTE PASARTE BAT. 'Were Base-  
ria' i:eneko poema lihuru (War, here it:aurrean:*

(...) "Ni ez naiz baserrian bizi, ez naiz baserriar lanetan ari. Baiña baserri txairo baten altzoan jaio nintzan; beraz. maite dot baserria ta onik zabalena opa diot. Orixegaitik idatzi dizut poema au, egiatzko baserriar banintz bezela. Eusko baserria iraun dedin, nai dot biziro. NERE BARNE ARNASA dira bertso aalik ondoen biribilduak".

"Nere barne arnasa" dio.

Jaun-andreok: on dana, ez al da poesia bete betean?

Ataungo jakitunaren itzak eta Aita Onaindiarenak irakurrita, ez da zail jakitea, nola eta zergatik izan duten, ainbat eta ainbat elizgizonek here jaioterriaren kulturarekin ain lotura estua, or euskera nagusi dalarik. Betidanik ain zapaldua izan dan gure euskera maite au.

### 3. RITA SANTI ONAINDIA, ELIZGIZON, EUSKALTZALE ETA OLERKARI **BATERA**

Aita Santi, elizgizon, euskaltzale eta olerkari batera. Zergaitik? Bada, nere uste apalez, uztertu egiten zituelako iru eginkizun oriek bere jardunean.

Aurreko lerroetan Aita Santi eta On Joxe Migelen itzetan argi eta garbi adierazten zaigu, zergatik izan duten elizgizonek ain lotura estua beren jatorrizko kulturarekin. Gurasoengandik jasotako kultura orrekin.

Ondokoetan -besteren iritziakin batera— Aita Santiren itzetara joko degu berriro. Iritzietara eta olerkietara.

Eta atal au asteko, auekra ederra ematen dit PAULIN SOLOZABALEK, elizgizon eta olerkari dan aldetik. Aita Santi il ondoan, Euskerazaintzako aldizkarian, olerki batzuk eskeiñi zizkion. Begira, zein ederrak diran!

#### AITA SANTI ONAINDIA EUSKERAZAINTZAKO

Zeru izarrak zabaldu eutzun  
argia Euskalerrira  
izkuntza eta jendetza baten  
alor bikain zabalera;  
dana zenkusan eder-miñetan  
deika biotz barrenera;  
lagun zakiguz euskal semea  
eskuak jalkiz lanera.

Erantzuera jatorra izan zan  
semeagandik deiari,  
gorputz, gogo ta bizi guztia  
eskeinduz dei maiteari:  
goiz ta arratsalde urratu ziñan  
abestuz maitasunari:  
arbaso erri ta Euskadiri ta  
bere Jaun ta Jabeari.

Jakituriaz sortuak sortu  
olerki bikaiñetan,  
iñoiz ez ziñan miñez antzutu  
ederraren lerroetan;  
amai bagea izan be ba da  
Euskalerrri ederretan;  
beregana dauka arantza zar bat  
neke-samin astunetan.

Liburu sakon aundi ederrak  
benetan agurgarriak,  
euskal itzetan sortu zenduzan  
betiko aipagarriak;  
zeru ta lurra alkartu dozuz  
oroituz zoriontsuak.  
ta aren idatzi zorgarriak  
jarririk euskeratuak.

Ezin dot aztu, ezin dot itzi  
olerkien sariketa,  
zenbat lan batu zenduzan  
elertiak bizkortuta;  
eskola antzo biur zenduan  
Larrako olerkaritza,  
Onaindia zan buruzagia  
olerkarien ardatza.

Paulin

Beste iritzi batzuk.

#### MARTIN OLAZAR EUSKERAZAINTZAKO LEENDAKARIAK:

Alta Santiri. EUSKERAZALEAK eta EUSKERAZAINTZAK eratuta omena eta goratarrea eskeiñi zitzaion, aurtengo urtillaren 19an. Irudi bat ipiñi zaio Larrako iturri ondoan. Ekitaldiaren barruan Martin Olazar elizgizon eta Euskerazaintzako leendakari danak, Aita Santiri buruz irudiaren aurrean esan zizkigun itzetatik jasoak:

Idazle ugaria eta jatorra.  
—Izlari oparoa eleiza. baseleiza naiz parroketan.  
—Elertiaren aztartzaille gorengoa.  
—Lirika edo barru-miñezko euskal olerkaririk onenatarikoa.  
—Itzultzaille trebe eta iraunkorra.  
—Euskeraren irakasle maitagarria.  
—Euskalerrriaren eta euskaldunen indartzaille.  
—Eleiz-gizon apala eta Barri onaren lekuko ziurra.  
—Adiskideen adiskide.  
—Bizkaiko euskerearen aldelari.

Martin Olazar eta Paulin Solozabalek, ornar, ederki asko azaltzen digute Aita Santiren maixu-lan ugaria. Batek itz-lauz. besteak neurtitez. Biak trinko-trinko laburpen mamitsu batean.

## EUSKAL-ASTEA

*Eta JOXEMARI LATXAGAK, eli\_gi=on eta Euskera=  
=aint\_ako kideak:*

Aita Santi Onaindiarekin izan zuen elkarrizketa baten adierazpenak ematen dizkigu Epailleko Euskerazaintzaren aldizkarian. Jakingarri zabalak, mamitsuak eta zeatzak. Nere lantxoari zuzen-zuzen dagokion pasarte bat jaso der:

— Latxagak: Nola egiten dituzu olerkiak?

— Aita Santik: MAITASUN aundia ta indarra euki ezkerero, zaletasuna agertu ta alegindu egiten dozu, ta norbera zai egon ezkerero..."

Ni, Aita Santik bere olerkien bidez niregan utzi duen eragiña azaldu nairik aalegintxoia egiten ari naiz.

Aita Santik bere iritzietan agertzen digun sentipenen arabera, BA DIRUDI ANTZEKOA ZUELA OLERKIGINTZA BERE GOI-GOGO JARDUNEAN; eta ez xede edo elburu. Olerkia beretzat, ez dirudi leia utsa zanik eta ildo orretatik BATERATU EGTEN ZITUEN BERE EGINKIZUNAK, AU DA: ELIZGIZON, EUSKALTZALE ETA OLERKARI IZATEARENAK.

*AITA SANTI BERAREN ITZETARA JO DEZAGUN:*

"GOIZNABAR" olerki liburuaren itzaurretik artuak daude.

(...)" Erri-talde antxiñakoenak be, poesiz abestu izan oi dabez euren BARRU SENTIPEN gartsuak.

(...)" Olerkia BARNE-INDAR ixillak darabil, jantzi eder sotillea lorekatua. Pentsamentuak eta biotz-ikarak dagie mamiña

(...)" Neurtizlariak, ba du SENTIPENIK ugari eta pentsamenturik naiko.

(...)" Poesi lanean BERE BARRUA ustu bear dau gizonak: baiña ez dago bakarrik, here antzeko asmo dauz inguruan, eta inguruko orrekin larri ta egon eziñak be aizatu bear ditu.

(...)" Olerkaria munduaren LARRI-MIÑAK abesten saiatu da.

(...)" Mundua aurrera doa, abiada ikaragarrian; -jarraitzen du Aita Santik esaten-, ez, gaur ez gara bizi orain lareun edo eun urte lez, ezta orain berrogei urte lez. Orduko poetak ordukoa kantatu eban, gaurkoak gaurkoari (...) Ordukoak eta betikoak dira berriz gaiok: GOI-BARRU KEZKA. MAITASUNA.

(...)" Bilduma onetan be, guztietatik datoz. NI ELIZGIZONA naz. Eta zillegi yat maite gaietan murgiltzea? Zergatik ez? Ez gara guztiok BIOTZ BATEN jabe? Nire maite kantetan, alan be, ez billa iñoiz be maliziazko zerik".

AITA SANTIREN ESALDI BATZUK, "Felipe Arresebeitiaren Olerkiak" liburuaren itzaurrean:

(...)" Erriaren TAUPADA zaindu.

(...)" Gure BARNE MINA nasi ta biztu arotzeko orrela zorroztu oi jako olerkariari.

(...)" Gure jakitez ez dogu geiegi arrotu bear.

(...)" JAINKOA ORRELA NAITA.

(...)" Gizon zoli gartsua ERRIAREN SAMIN GORDIÑA kanta naita.

(...)" BIOTZ ZABAL izanik.

(...)" Barrenago atxurto nai ezkerero iru iturburu eban, batez be gure olerkariak: -dio Aita Santik Arresebeitiari buruz— Adimena, irudimena, ixio ta BIOTZ-LEZA.

(...)" Leenago esan dot, -jarraitzen du Aita Santik— EUSKAL OLERKARIAK EZ DAU IRUDI TA ASMAKIZUN BILLA ZETAN EGONIK. Jarri bedi Iparragirrenen antzera "Zoraturikan zabal-zabalik begiak" ta orra apaldi gartsuak zegaz jantzi, lora pitxiak nun ebagi.

(...)" JAINKOA MAITE DAU, ta arengan biotz jasorik, Aren lege jakintsuak goratzen ditu, AREN EGIÑEN OSOTASUNA ABESTU. (...).

Oneraifio Aita Santiren iritzi mamitsuak. Iritziei ere poesia darie. Eta ondo asko oar gaitetze, zer nolako garrantzia ematen dion BARNE MINTZOARI...

### AITA SANTI ONAINDIAREN OLERKI BATZUK: ("Goiznabar" liburutik artuak)

#### KRISTO

Sar zara nire baitan,  
ta zurea, bai, maite  
zorion betea!  
Ez asmatu, ez esan,  
gizona alegin arren,  
ezin lengoxea.

#### OLERKARIA

Ez daki norantza: doiñuz josia,  
korkor doa gure olerkaria.  
GOI-argia dau ixuritzen,  
biotzak orruz dardaritzen.  
(...)  
Baiña olerkari, jo ik doiñua;  
eta, kanta, garrasi; ESNA MUNDUA!  
Oa leiatsu euskal lur gaindi,  
ta egik didar, oi zoli!

#### BAKE

Bake, zer ete zaitugu?  
Zer ete zure ona?  
Bake eder! Ta zure billa  
dabilkigu gizona...

Aingeruak gaur dabese,  
"GORA JAUNA ortzean,  
ta bakearen zoria  
gizonari lurrean"  
(...)

Goraizu gizon ertuna,  
zure aitzin-erpiña,  
ta aintza! GOGORA JAINKOA,  
orrena baita diña.

### BETI EUSKALDUN

Ez gara ilkor! ... Ez ete?...  
beti zarreko ta berri...  
JAINKO, zer, zar euskal erri,  
zar biok beitez zoragarri!

JAINKOA ortzi goitik,  
beian gure lurra jori...  
Euskal lur,  
euskal erri!  
JAINKOAK EGIÑA ZARA ZU,  
mendi ta ibar narotsu.

Lurrez ez zara zabala,  
baiña fedez bai garbala.  
Osorik zaitugu lerdan,  
egite garbitan guren,  
EUSKAL ERRI,  
LUR MAITE:  
JAINKO TA ERRI ZAITE!

Zure sabel emokorrak  
beñola gatzatu nindun,  
eta miñak ikutua  
orain nabil zauridun.  
Euskal lur,  
oillo-lur:  
Nadin beti euskaldun.

Onaraiño Aita Santiren iritzi goitar mamitsuak eta olerki sakon biribilduak.

#### 4. ONDORIOZ. Jainkoaren billa

Arta Santi Onaindia, poeta eta olerkari, Jainkoaren billa. Zergatik poeta eta olerkari?

*Arta Santik bere i eiten ditu.*

Onela:

(...) Pentsamentuak eta biotz ikarak dagie mamiña. Azala edo jantzia, barriz, itz, esaera ta irudikizun bikaiñak. Biak doaz lerro bardiñez... Goiko argiaren sorpena da olerkigintza, or zati bi, olerkia -olerki, poesia.– poesi, egin daroenak. Norbait izan daiteke poeta, baiña olerkan txar: Ez daki inñundik be bere gogapen eta BARRU-ZAUSTA-DAK soñeko dotorez jaxten. ("GOIZNABAR" liburutik).

Eta "Aita Santi Onaindia Olerkaria" gaiari buruz ari naitzela, bearrezkoa det maixu aundi baten iritzietatik zatitxo bat, bada ere, artzea.

*JUAN MARI LEKUONAK, goimallako olerkariak, Santi Onaindiaren "Olerki Guztien Bilduma" liburuko itzaurrean:*

(...)" Estrofismoan Aita Santik egiñiko lan ederra.

(...)" Lirikotasun indartsua.

(...)" Bi liburu mardulak eta arnas haundikoak, "GOIZNABAR" eta "NERE BASERRIA".

(...)" Esan daiteke metaforizazioak eta metrikak zerikusi haundia duela Alta Onaindiaren poetikan eta olerkigintzan.

(...) Batez ere metaforetan eta erritmoan bere emaitza gauzatu nai luken olerkari dugu".

Labur zurrean itz gutxi batzuk artu baditut ere, naikoa adierazten digute.

Aita Santi poeta eta olerkari aundi bat degu aide guztietatik.

Gera bedi ortantxe adituaren iritzia.

Nerea apalagoa izan bear nai ta nai ez. Iritzipen osorik eta zeatzik nik ezin dezaket eman. Bego eginbear on Juan Mari Lekuona bezelako jakintsuentzat.

Ni, erri xeearen barruen dagoen bat izanik, Aita Santiren lan ederrak niregan izan duen eragiña azaltzen nabil.

Leiaketarako ere idatzi zituen okerkiak. Baiña neure ustez, olerkigintza beretzat zerbait geiago izan zan. Aita Santiren iritzietan eta olerkaritzaren osagaien oiñarrarian ELIZGIZONAREN MEZUA dager. Teknika eta sormenaz gain beste zerbait sakonagoa nai digu erakutsi. Elizgizon da, eta here olerkigintzan leku aundia du BARNE MINTZOAREN INDARRAK. Tresna duela esan dezakegu olerkigintza; aldi berean artea ere izan dedin pertsonen barmuiñen baregarri, pake sortzaille, gorroto itogarri...

Azken batean, esan dezakegu olerkaritzaren bitartez ere, Aita Santik JAINKOAREN MAITASUNA txertatu nai izan zuela.

On Joxe Migel Barandiaran "Doctor Honoris Causa" izendatu zuten Unibersidadean "El Sabio de Atauñ" deitzen zioten. Goi maillako zientzi-gizona zala esango zan sarritan. Berak berriz auxe zioen: "Ni batez ere apaiza naiz". Eta era berean Alta Santi batez ere elizgizon genuen.

Aita Santik olerkigintzaren bitartez ere, here sormeneko lanekin eta besterenak bultzatzen; beraz, egille eta eregille ezanik, asmo nagusi batzuk izan zituen: Gure gizartea baretu, pertsonak elkartu, asmotan batu, eta ama euskeraren Erria, Euskalerrria, fede gaillurretara bideratuz, JAINKOAREN SOROA LANDU.

### AMAIERA

#### 5. AITA SANTI ONAINDIA GUREKIN

Une batez, Aita Santi Onaindiaren olerki girorik alda nadin musikarenera.

Nolakoa ote zan Julian Gayarrerren aotsa? Ez dakigu. On ona zala edestiak azaltzan digu. Baiña besterik ez genuen

---

## EUSKAL-ASTEIA

---

artu. Edisonek artean magnetofona asmatu gabea bait zuen. Erronkariko abeslariak bai omen zuen arazo orren kezka. Bein batean, Julian Enziso adiskideari, biak zaldi gainean zijoazela Erronkariko bideetan barrena, au adierazi omen zion:

"Antzeztari baten aintza, gaueko loa bezelakoxea da. Margolari batek, poeta batek, musikagille batek bere egin-tzak uzten ditu. Guregandik, abeslariogandik, zer geldit-zen da? Deus ez".

Barka ezaidazue etenaldi antzeko ori, aldi berean, kon-trajarreran, lokarri nai bait du izan. Zergatik? Bada, Gaya-rrek, gure napar-euskaldunak, operan izan zuen maixutasu-na eta bere aots paregabea betirako galdu genituen. Aita Santiren lanak ordea, here egiñak eta here eragiñak, bizi-bizirik, emen gelditu zaizkigu. Beraz, gure artean jarraitzen duela ere esan dezakegu.

Donostiako "El Diaro Vasco" egunkarian -Basarri mai-xuaren bitartez "Nere Bordatxotik" izeneko saillean-, ber-sotxo batzuk eskeiñi nizkion Aita Onaindiari; 1993gn. Urtekoak dira. Eta aurreko itzetan esan dedanaren arabera, alegia: Aita Santik gurekin jarraitzen duela; ba dute gaur-kotasunik neure uste apalez. Beraz\_ zillegi bekit, bertso oriekin eginbear oni amaiera ematea.

1996ko GabonillaJoxemari Murua-Goñik

### Aita Onaindiari

Ementxe ni bertsotan  
Larran ate joka,  
eta neure gogoa  
bertan nai det koka.  
Aita Onaindia or  
aspaldi dago-ta,  
nik berari onena  
nai nioke opa.

Amoroto errian,  
Bizkaiako parte,  
izar ori piztu zan  
orain ainbat urte.  
Larogeitairu ditu  
ba da naiko tarte.  
bere ospe aundia  
egiñak dakarte.

Eskerronak bultzata  
ausartutik nator,  
Donostian bizi naiz,  
Larran zaude zu or.  
Zure zabaltasunak  
ba du ainbat alor,  
euskaltzale aitagoi,  
baita fraile jator.

Gure kultur gaietan  
beti zu nabari,  
baita Jainko bidetan,  
ortik olerkari.  
Zure uzta ederrak  
badu naiko gari,  
aldatz pikuan beti  
emanik ugari.

Neure ezerezean  
zuri bertsotan gaur,  
mendigoizale bait naiz,  
ta zu berriz gallur.  
Ur gardena nai dunak  
zugan ba du murmur,  
Jainkoa da zurekin.  
Aita Santi, agur.

Joxe Mari Murua  
Donostia

### AITA SANII EUZKO OLERKARI

Barne miña dot etsi eziña  
izugarritzko samiña,  
nora joan da euskal maisua  
gu emen bakar itzita:  
euskal parnaso guen kaletik  
al zagoz guri begira...  
itz eta kantu bijoakizuz  
zeru goiko erreñura.

Almen ederrez ondu zinduzan  
ezin obeto jantzirik  
burua argiz, biotza maitez  
gizatuasunez beterik:  
urretxindorren irudi ziñan  
euskal semea bizirik,  
zure olerki zoragarria  
barne miñez ixuririk.

Ederra zendun biotz gidari  
olerki bikaiñenetan,  
jakituriaz loraturiko  
oldozmen argitsuetan;  
barneko mina ezarri zeuntsan  
olerkiari egitan,  
gure izkuntzak autortzen zaitu  
ertilari goienetan.

PAULIN

## ARGIU<sup>v</sup>1EAK

### T.V.E.'ko Gauzak, Ora pro Nobis.

—Madril'go Telebistak ez daki Ondarroa Gipuzkoan dagoen ala Mutriku Bizkaian.

— Ezta Plentzia Santander'en dagoen be.

— Eusko Jaurlaritzak egin bear leukie, Euskalerrri'ko mapa bat duban emon.

—Geure erriak nun dagozan ez ba dakie, nola jakingo dabez geure Fuero Zaarren eskubideak...

—Bape ez dakie.

—Jakin nai be ez.

— Madril'go jaun-  
txoak geuri Ratas esan eta orrekin naikoa dabe.

—Aspaldian gertatutakoa esango deutzut: Aita Santu Woytila oso ibilkaria da.

—Bai, ungrianuen antzera.

—Joan zan Brazil'era eta an auxe esan eban: San Pao-  
lo eraiki ebenak bi Jesuita onek izan zirala: Noriega eta Antxieta. Onengatik, izlari espāñolak bere kontura: (Por cierto de Canarias).

—Antxieta Canarias'koa?

—Antxieta ez al dira Iraurgi ballarakoak, Azpiti ingurukoak?



### Lurrunak eta Otzitukerriak

—Jerusalem'dik etorri zan berriak, onela dio: Gure amak eukien arrazoi otzitukerriak eta katarroak lurrunagaz sendatzen ebezenian.

—Amen ez da iñor sendatzen lurrunagaz bakarrik

—Ez ekien zelango berotasunagaz artu bear ziran lurrunok.

—Zelangoa biar dau, ba?



— 42 gradutik 45'era lurrunen edo lurriñen boratasunak eta gelarenak, berriz, % 88 gradu ezetasun.

—Ori konplikaziño asko da.

—Ba, bi alditan ordu-erdi lurrunak artzea naikoa da, birus guztiak akabatzenko.

### HOAC eta CCOO (Vida Nueva: 20-x-1996)

—Zer da HOAC ori?

— Ekintza Katolikoaren Gizonen Elkarte.

—Eta, orrek badau zer ikusirik Comisiones Obreras'kin?

— Antonio Gutierrez, CCOO'ren idazkari nagusiak Comisiones au, beste HOAC'eren gabe, ez litzake izango.

—Gauza arrigarria benetan.

—Mundu onetan gauza arrigarri asko gertatu da baztarretan: oraingo Jauntxo "filipito" ugari bizi izan da Elizaren gona-azpitan; gero aide batera utzi ba dau ere.

Onek, beintzat, aitortzen dau laguntza ori...

—Ez ornen da sekulan astuko, CCOO taldetxoan asi zanean, zer laguntza eman zioten HOAC'eko zenbait gizon eta emakumeek.

—Eta, orain, zer?

—Orain eta gero ere, bide estuetatik bide zabalera irteteko, bearrezkoa izango omen da orrelako talde bat gizarte-burrukarako.

—Ona ustegabeko Peru.

### Lisieux'ko Teresetxo Donea

— Eun urte betetzera doaz bere eriotzaren urte-muga onetan.

—Gazterik il al zan?

—25 urte, aunki baten laurdena, jaiotzetik eriotzaraiño bere bizitzaren tartea.

— Eta, denbora ain txikian, Done ain aundia egin al zan, ba?

— Aizkeneko denbora auetako Donerik aundiena izan zala, esan eban Pio X'garren Aita Santuak.

—Zer egin eban ba, ain aundi izateko?

—Bera txikia izanik, Jainkoganako maitasun aundia agertu. Maitasun orrek igo dau goieneko maillataraiño.



## ALBISTEAK

—Txikitasunean agertzen da aunditasuna, esaten eban gure Arropain'go aitabitxik.

### Cuba'ko Castro

Ikustalditxo bat egingo omen dautso Aita Santuari...



— Baña, Castro onek ez al dau ainbeste urteetan Ekizaren aurka-ko burruka egin?

— Bai, baña asieran ez omen zan orrelakoa. Errosario santua eskuetan, egin el eban Sierra Maestra'ko iraultza.

— Errosarioakin?

— Bai, eta prailleak laguntzaille gudarostean. Nik bi, Arantzazu'ko franzizkanoak, esagutzen dodaz neure errian.

— Gerratean geure abadeak ibili ziran antzera...

— Berdin, berdin.

— Eta, nun dira orain praille orreik?

— Alde egin bear izan eben, Castrok jaurlaritza artun ebanian eta geure artian dabilta.

— Eta orain, zer ba? Kubak iraultza-bide barriak artu bear dauz, ala?

— Alan emoten ote daben... Bañan, Castro ez doa zuzenean Aita Santua ikustera.

— Zertara, ba?

— FAO, Nazio arteko Elkarreak, Erroma'n dau bere bizi-lekua eta FAO'k dau mundu osoko janarien ardura... Eta Cuba'k janariak bear...

— Ordua erderaz esatan dana: "Por atún y a ver al Duque"

### Mogol-eritasuna

— Aspaldi irakurri neban eritasun orren ben-i.

— Zer berri?

— Franc S. Lejeune jaunak onela esaten eban: Gaurko egunez esan ezin eritasun ori sendatzerik dagola.


— Zertan dago eritasun ori?

— Sortzearen akats bat da: 46 kromosoma izan bearean, 47 agertzen dira. Ezagutze berri oneri "Trisoma 21" esan ei zako.

— Eta, gaitz orren arriskua nundik sortzen da?

— Gurasoak zaartxoak izatetik eta sortze-aurkako pil-dora artzetik ugaritzen omen dira...

### Abadeen palta



— Abadeak palta omen dira gaurko egunez.

— Ugariak ziran, ba?

— Bai, orixe. Odolosteak bezela egiten zituzten garai batean.

— Orain gaztau dira.

— Alan be, Aita Santuak 38 egin ebazan batera oraindik orain.

— Noiz?

— San Prudenzio egunean, apirillak 28 Bokaziñuen aide Otoitz egiteko aukeratutako Egunean.

— Bai eder...

— Aita Santuak esan eban ze, Kristo gertu egoala, Artzaia danez, abadeari laguntzeko bere abade-lanean. Eta, egi on ziur sinisteko, bere eginkizunak betetzean...

### Aitortzaren Ixilpea Kulunkan

— Martiriak be izan dira aitortzaren ixilpetasuna dala eta ez dala.

— Bai, ba, geuk beti entzun izan dogu, ezin dabela abadeak, aitortzetan entzundakorik esan.

— Ez-ta eriotza tartean izanda be.

— Eta, orain, nundik austen dabe ixilpetasun ori?

— Michael Maslowski abadeak, aitortza bat entzun dau kartzelan.

— Entzundakoak agertu agin dauz?


— Ez dautso iñori ezer agertu; bañan, eurok ezer jakin barik, kasette bat eukien alboan, bien berbetea artzeko.

— Eta, zer?

— Epailleak aitortza ori erabilli nai dau presoaren aurka eta ortik sortu berealdiko zalaparta.

— Nun gertatu da oker ori?

— Estatu Batuetako Oregon'en.





**Buruko Miñak**

—Buruko Miñak zaiñak zabaltzen diralako, izaten da geienetan.

—Zerk zabaltzen ditu?

—Berez Izakian gertatzen dan gauza batek: presiñoak, uste barik, aldaketa aundia izaten dabenian... Unetxo batean, goruntz egiten ba'dau...

—Beti al da orregaitik?

—Baita kirioen, nerbioen, arazoa danean be: Etxeko gora-beera gaitik, norberak kirioak azalean dabelako, disgustoak diralako eta abarregaitik... Onek be, zanak zabaltzen dauz.

—Eta, geiago zerk?

—Ortzetan, zaman, sudur-baztarretako zornak be, zabaltzen dabez zañak. Baita barruko gorputzaren aldaketak; loditzea, argaltzea, diabetes eta abarrek be bai. Begiak ondo ikusten ez ba' dabe, berdin.

—Ez dira gauza gutxi...

—Geiago ere bada: buru eta lepoko ezurrak, sudur-gaiñeko uneak, odola...

—Oiek danak gogoan eduki bear al dira buruko-miñak nundik datozen jakiteko?

—Oiek gutxienez. Eta, oiek ondo aztertuta gero, sendagaiak billatu: Presiñoa ba'da, presiñoarentzat; nerbio-arazoa ba'da, kirioak baretzekoak artu; zornatik ba'

diranean (argaldu edo gizendu), orixe kontuan artu; gorputz-barrura ezer sartu ba'da, jakin zer dan, berriro ez sartzeko...

—Odola ba' da edo buru lepo-ezurrak?

—Sendagillearena jo. Oba, aurretik bazoaz.

**Suangilla eta Kurkutea**

(Errenderi'ko ipuia: Orain irurogeitaka urtez, Txomin Loinaz nere lagunak, Orereta kalean bizi zanak, bere aitonari entzuna).

"Suangillak apustu egin omen zion Kurkuteari (caracol), zein lenago eliz-torrera igo. Eta biak



abiatu omen ziran orman-gora. Baña, suangilla (oso aurretik zijoana), gaua etorri zanean, ormazuloan gorde omen zan, gaua igarotzeko. Kurkutea, ordea, gauaz ere orman-gora.

Eta, goiza etorri zanean, kurkuteak pozez omen zion goitik:

—Emen nauk. Iritxi nauk.

Orduan suangillak, lotsatu-ta, onela esan omen zion:

—Orain, is beera zein lenago joaten geran.

Suangilla abiatu omen zan; baña, kurkuteak bere burua beeko osin tartera bota omen zuan.

Ipui au esaten zuanean aitonak, onela zion:

—Ia zuek ere, gazteok, bat geiago dala irudi arren, ez utzi zuen lanari, alegiñak egin kurkuteak bezela, saria irabaziko dezute-ta.

**San Martin eta Jentillen Etorrera**

Gaur. San Martin Eguna, Azillaren amaika.

Txerri-bodak egiteko garai ederra.

—Ataun-San Martin'go festak.

—Odoloste ederrak egingo dabez an...

—Baita Jentillen Etorrera antzestu be.

—Nortzuk ziran Jentillok?

—Ataundar oiek ez dakite; burua naastua daukie.

—Zer, ba?

—Geure ipuietako Jentillek mendi-gaiñeko gazteluetan bizi ziran, urrez aberatsak, baeben ogi zuri ederra eta San Martin Txikiko jendea, beuren mende ebezan... Ataun'en bertan, euren aurka jeiki ziran, San Adrian'go zulotik aurrera Arabaraiño bota arte.

—Eta, orain zertara ekarri?

—Or dago naastea: Kristautasunaren orde, Jentillak.



BARTOLO ARROPAINGO

---

## GAZTERIARI BURUZ

---

Uztaillaren aldizkarian, 209 zenbakian, Enrike Itxasleren idazkia irakurri nebanean, asko poztu nintzan, beraren asmoari nik ondo deritxot eta edozein jaitan gazteen zoramena ugaritzen doala, egia da.

Gazteengan. beste aldetik, erru guztia ez dago: Gurasoak, ezlariak. irakasleak, agintariak eta auzi edo lege-arduradunak be euren errua dauke.

Azterpen edo ikertzeak egitean, argitaratzen dabezan eunekoak beti izugarrizkoak izaten dira, baña zer egiten da edo egiten dabe euneko on gitxitzeko? Ezer ez, danak dira ezak eta eziañak.

Oraingo ardurea, gidari gazteengan dauke ezbear larregi dagoalata eta zer otu jake? Gidatzen dauan gazteari ezer edo gitxi edatea gomendatzen deustoe baña zuek on naikoa dala uste dozue? Nik ez, nik geiago eta gogorrago ekin bear dogula uste dot.

Langabezia. gazteen areriorik nagusiena danaz ziur gagoz, orrexegaitik egoten dira ia egunero loak-galtzen edo gaubelan. Onek be, beste gauza txarretara daroaz eta agintariak bitartean gure gazteak zaindu egin bearrean, bide txar orretara joteko erreztasunak emoten deutseez

Zelan? Edantokiak ugaritzeko erreztasun guztiak emonda, orreen ordutegiak diruaren truke gero ta geiago luzatuta, geien edaten dauanaren txapelketak ondo ikusita, drogak artzen eta lortzen dan lekuei bizkarra emonda, tokiotako arduradunei arrapatzen dabezanean ate batetik sartu eta diru ordainketaz, beste atetik atarata... eta abar.

Gurasoak bitartean, zer egin dogu? Batzuk, oiuegin, soñekoak urratu eta ia beti errua, beste baterengan billatu baña batzutan erruren bat gurengan dago. Nork emoten deutse gazteei dirua? Eta etxera ain berandu eltzeko baimena? Sarritan au galdetzean onelako astakeriak entzuten dodaz:..." baña... dirurik ifwiz falta ez bajake, ez dira lapurretara joango" eta... "etxeko atea beti zabalik itziten dabeutsegu, ez dabe kaleetan lo-egingo". Tentelok! Gero ta geiago eskatuko deustuee, etxera, gero ta beranduago elduko jatzuez eta, astiro-astiro, batzuk, lupetzetan murgiltzen joango dira.

Osin baltz orretan jausi diran zorritzarrekoak, leenago edo geroago espetxeetan sartzen dira eta leku orretako arduradunak, dakigunez, antxe bertan gertatzen danaren aurrean, itsu, mutu, eta gor egiten dira. Zer egin daiteke? Erreza! Ustel dagona kalera bota, espetxekoei dirurik emotea debekatu, espetxeratuak ez dau an bertan dirurik bear, lan eta janari ugari ta duina baño, diruakin bertan gauza eta pertsona txarrak erosten dauz eta.

Gauza oneek eta askoz geiago erakundeen eskuetan dagoz baña erabaki egin bearrean, jai-toki eta edan-toki kontrolik barik baña zergak artzeko asmoz, zabaltzeko baimenak emoten jarraitzen dabe.

Zein izan bear da beraz gure egintza?: Seme-alabentzako ezlari onak izan, aipatutako gauzak ikusten doguzanean

salatu, eta ondo erabakitzeko borrokatu, bestela gure gazteak gure lelotasunarengandik, zer ikasiko dabe?

PALMI

### BIZI-1VIODU BERRIA

Burnizko mendietara bizitzen abiatu naz kalea ta uria itziten pozez eta bakean.

Bizitzaren bide erdia kutsadura ta ketan, orain eldurik nagola mendi, zeru. izarrak...

Begiak leioratzean edozein aldetara itxaso naiz medietan lilluraz josten dodaz.

Gogor jotzen dau eguzkik gogor ere aizeak goizeak eta arratsak bai dirala ederrak!

Egunsentia ikusteko goizetik jagiten naz ekialde okaiñezko au bai zoragarria!


Arratsaldeko eguzkiak lotara doanean here urrezko azken argiak eskeintzen deuskuz doan.

Zeruetako margoak leen ikusterakoan begiak, gora jasota orain berriz, aurrera.

Auxe bai lasaitasuna Bizitzeko pakean danok berezi doguna gulako gustokoan.

Palmi

# EUSKALDUN BARRIENTZAT



IRUDI BAT BAKARRIK DA A LAKOA. ZEIN?

KARMELE

# USKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO



Itzau begiak une batez eta  
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten  
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat  
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?  
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.  
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin  
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.  
Urbiltasuna, begikotasuna,  
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so  
antziñako sukursal orren argazkiari.  
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein  
bulego ta sukursalekin.  
Ez dira ain ezbardiñak.  
Azkenean, garrantzitsuenak  
bere orretan diraelako.  
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on  
ondo dakigu BBK'kook.  
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.  
Bahia leengo berberak gara.  
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz  
eta geureaz onurak itzultzeko.

*Betidanik.*



**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**  
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK